



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoak 24**

**Vitoria-Gasteiz, 24 de marzo de 2020**

**COVID 19**  
**Lehendakaritza**

## COVID 19

### Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

#### COVID 19REN INGURUKO NEURRIAK

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak enpresa txiki eta ertainei zuzendutako neurriak ezarri ditu, bi jarduera-ildotan banatuta, guztiak premiazkoak.

Neurri-bloke bat, Covid19 Aparteko Funtsetan estaldura izango duena, eta beste neurri-bloke bat, sailean bertan eta Spri taldean dauden eta Euskadiko enpresa-ehuna dagoen larrialdi-egoerarako egokiak diren programen ezohiko kudeaketaren bidez egingo dena.

Guztira, **45.415.000** euro bideratuko dira, premiazko izaeraz, ETEetan teknologia eta telelana prest jartzea errazteko; koronabirusa arintzen lagunduko duen premiazko ikerketa egiteko; industriako eta elikaduraren sektoreko ETEei zeharkako finantzaketa emateko; Covid19k eragindako krisian dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntza-lerro berri bat; eta elikadurara produktuen soberakinak kudeatzeko programa berri baterako.

45.415.000 euro horietatik, 27.000.000 ordainduko dira, Covid19 Aparteko Funtsetik abiatuta, eta gainerakoa indarrean dagoen aurrekontu arruntetik kudeatuko da.

#### **TECNOLOGIA ETA TELELANA**

##### **1. JARDUKETA. INPLANTALARIAK**

Telelana Aholkularitza eta Ezarpen Zerbitzua, autonomoen eta ETEen eskura, beren jarduerarekin edo jardueraren zati batekin etxetik jarraitzea ahalbidetuko dien teknologiaren erabileran laguntzeko.

Zerbitzu hori modu telematikoan ematen du autonomoei eta enpresei aholkularitza ematen eskarmentu handia duen teknologiako profesional-talde batek.

Zerbitzua martxoaren 20tik, joan den ostiraletik, dago martxan, eta orainarte 160 ETEk hartu dute parte.

Ekimenaren zenbatekoa **390.000 eurokoa** da. Zerbitzu hori COVID-19 baino lehen ere eskaintzen zen. Orain, Alarmako egoerara eta Telelanera egokitu dugu, kostu gehigarririk gabe.

Informazio gehiago <https://www.spri.eus/laguntzak/>

## 2. JARDUKETA. INDUSTRIA DIGITALA: ETE-EI MATERIAL TEKNOLOGIKOAK EROSTEO LAGUNTZAK

Programaren deialdia aurreratu da, 2.360.000 euroko zenbatekoarekin, eta industria-enpresetan eta industria-produktuari eta -prozesuari lotutako zerbitzu teknikoen, diseinuaren eta logistikaren enpresetan Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologiak (EIKT) sartzen laguntzeko, enpresaren lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

Enpresetan EIKT desberdinak ezartzeko %50, %35 eta %25eko diru-laguntzak bideratuko dira, enpresaren tamainaren arabera.

**Telelana diruz laguntzeko aukera ezarri da**, aholkularitza-gastuak, ingeniari-gastuak eta hardwarea eta softwarea eskuratzeko gastuak lagunduz.

Diruz lagun daitezkeen jardueratzat hartzen dira EIKTak ezartzeko proiektu hauek:

- Sentsorika, SCADA, zerbitzazioa, prozesu industrialen automatizazioa, BIGDATA, Adimen artifiziala, machine learning eta blockchain.
- Errealitate birtuala, handitua eta mistoa.
- Ikuspen artifiziala.
- Smart Factory: industria-prozesuak simulatzea, gaitasun fisikoak eta birtualak konbinatuta.
- Robotika kolaboratiboa eta malgua.
- Fabrikazio gehigarria: ingeniari- eta aholkularitza-zerbitzuak, hasierako kontzepzioetik hasi eta produkziara arte laguntzeko.
- Gamifikazioa. Erabiltzaileak fidelizatzeko, motibatze eta haien konpromisoa lortzeko jokoetatik ateratako teknikak aplikatzea kontuan hartzen duten aholkularitza-proiektuak.
- Merkataritza elektronikoa: erosketak elektronikoak, Salmenta elektronikoak, B2B proiektuak (Business to Business) edo B2C (Business-to-Consumer).
- ERPs, Business Intelligence, SMC motako enpresaren kudeaketa aurreratuko sistemak, prebentziozko mantentze-lanak, hornidura-katearen kudeaketa logistikoa.
- Produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa (CAM cae, PDM, DMF motako aplikazioen ezarpena).
- Telelana.

### 3. JARDUKETA. COVID19 GAIXOTASUNAREN AURKAKO PROIEKTUEN IKERKETARAKO LAGUNTZA\*

Ikerketarako eta Garapenerako **milioi 1 euroko** ezohiko babesa, “premiaren, beharraren eta aukeraren arabera” laguntza zuzenen bidez, bai ZTBESako (Funtsezko Ikerketa) eragileentzat bai ENPRESENTZAT (Industria Ikerketa eta Garapen Esperimentala).

Koronabirusaren aurkako borrokarekin, eta osasun-larrialdiaren ondoriozko efektu sozioekonomikoak arintzearekin eta berreskuratzearekin lotutako proiektuak.

*\*Covid19 Funts bereziaren bitartez*

### INDUSTRIA ETA ETEentzat ZEHARKAKO FINANTZIAZIOA

#### 4. JARDUKETA. PROGRAMAK (GAUZATU INDUSTRIA, BIDERATU ETA BIDERATU BERRIA) ATZERATZEA

Gobernu Kontseiluak Arantxa Tapia sailburuaren Agindu bat onartu du. Agindu horren bitartez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko industria-programen laguntzen —aurrerakin itzulgarrien bidez— enpresa onuradunek **laguntzak eta datozen 6 hilabeteetan sortuko diren beste laguntza batzuk itzultzea atzeratzeko** eskatu ahal izango dute.

Atzerapen hori egiteko baimena izango dute jarduerarik ezako uneak dituzten, salmenten edo eskaeren bolumena murriztu duten, edo hornikuntza-katean etenaldiak —aipatutako programetan finkatutako itzultzeko obligazioei aurre egitea eragozten edo zaintzen dizkietenak— jasan dituzten edo jasaten ari diren enpresek.

Laguntzak itzultzeko atzerapen horretaz baliatu ahal izango dira honako programa hauetan parte hartzen ari direnak:

- **Gauzatu-Industria**, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko. Atzerapenaren zenbatekoa 7.200 eurokoa izango da.
- **Bideratu y Bideratu Berria**, krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko laguntzak finkatzen dituen. Atzerapenaren zenbatekoa 250.000 eurokoa izango da.

Eraginpean dauden enpresek itzultzeen egutegia aldatzeko, 2020ko ekitaldiko uztailleko kuotaren itzulketa atzeratzeko eta ondoren datozen itzultzeen egutegia egokitze eskatu ahal izango dute.

#### 5. JARDUKETA: **INDARTU PROGRAMAREN ORDAINKETA AURRERATZEA**

Agindu honen bitartez ere, INDARTU programaren (babesgabeko guneean industria-inbertsioak egiteko funts galdurako dirulaguntzak) onuradun diren ETEek dirulaguntzaren zati bat egoera normalean legokiekeena baino lehenago jaso ahal izango dute.

Aipatu behar da, **Indartu programaren** arabera, ordainketa egin aurretik, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Lurralde ordezkariak aitortu diren inbertsioak ikuskatuko dituztela.

Orain, salbuespen moduan, Agindu hau indarrean sartu eta ondorengo 2 hilabeteetan, egindako eta justifikatutako —dagozkien fakturak aurkeztuz— inbertsioen aitortunei lotutako ordainketa partzialak egitea eskatu ahal izango dute —dagozkien ikuskapenak egin aurretik— onuradunek. Faktura horiek aurrerago egingo den ikuskapenean egiaztatuko dira.

Administrazioak **1.500.000** euro aurreratuko dizkie ETEei.

## **6. JARDUKETA: BIDERATU COVID-19 PROGRAMA BERRI BAT ESKAINTZEA\***

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak laguntzak emateko Bideratu Covid-19 programa berri bat prestatu du. Hasieran **20 milioi** eurokoa izango da eta Covid-19 birusa zabaldu izanaren ondorioz **krisian dauden enpresak berregituratzera eta berriro bultzatzera** zuzenduko da. Programa hori Bideratu programari (indarrean dago) Europako erakundeek emandako baimenaren barruan kokatuko litzateke, eta covid-19 birusa zabaldu izanak eragindako krisiaren ondoriozko inpaktu ekonomikoaren aurka borrokatzeko Europako erakundeek helarazitako aparteko irizpideak bilduko lituzke.

Helburua da, lehiakorrak izateko aukera eduki arren —produktua eta merkatua badutelako—, ezohiko, bat-batean gertatutako eta modu globalean emandako egoera baten ondorioak sufritzen dituzten enpresak edo jarduera-sektoreak indartzea.

Jarduketa honen bitartez, jatorria Eusko Jaurlaritzak bideratutako aparteko funtsean duen aurrekontu-partida gehigarri bat eskainiko da. Partida hori, ahalik eta lasterren onartuko den Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindu baten bidez antolatuko litzateke.

**\*Covid19 Funts bereziaren bitartez**

## **7. JARDUKETA: PARKE TEKNOLOGIKOETAN ALOKAIUEN KOBRANTZA ATZERATZEA**

Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak alokairu-erregimenean parkeetan lanean diharduten enpresei zeharkako finantziazioa emango die, alokairu horren kobrantza atzeratuz.

Enpresek eskatu ondoren:

- Enpresen errentamendua eta komunitate-gastuen ordainketarako 3 hilabeteko atzerapena finkatzea. Epe hori ere hiru hilabetez luza daiteke, guztira 6 hilabete atzeratuz.
- Atzeratutako guztizko zorra alokairu-kontratua amaitzeko falta den denboran banatu ahalko litzateke.
- Atzeratutako zor horrek ez luke inolako interes-tasarik sortuko; interesik gabeko zorra atzeratzea baino ez litzateke izango.

Errentamendu-kontratuen egungo baldintzak kontuan hartuz, 3 hilabetez atzeratutako zenbatekoen ondorioz, hiru erakundeek **3 milioi euro** gutxiago kobratuko lituzkete.

## **8. JARDUKETA: INDUSTRIA-POLIGONOETAN ALOKAIUEN KOBRANTZA ATZERATZEA**

Era berean, SPRI LUR –SPRI Taldeak Parke Teknologikoen eta Sprilurren aldeko alokairuen kobrantza 3 hilabetez atzeratzea erabaki du, beste 3 hilabetez atzeratzeko aukerarekin.

- Ondorengo 3 hilabetei dagozkien errentamendu soileko kontratuen errentamendu-kuoten atzerapena; beste 3 hilabeteko atzerapena ere negoziatu ahalko litzateke.
- Ondorengo 3 hilabetei dagozkien erosteko aukera duten errentamendu-kontratuen errentamendu-kuoten atzerapena; beste 3 hilabeteko atzerapena ere negoziatu ahalko litzateke.

Aurreikusten da jarduketa horren inpaktua **3.315.000** eurokoa izango dela, eta Sprilurrek birfinantzatu beharreko zenbatekoa neurria hartzen duten ETEei.

## **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA INDUSTRIA**

### **9. JARDUKETA. ELIKADURA SEKTOREAN SOBERAKINAK ESTALTZEKO PROGRAMA\***

**6 milioi** euro bideratu dira Elkarteei eta enpresei babesa emateko, lehen produkzioko produktu galkorren produkzio-soberakinak erosiz (arrantza, nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak, eta biltegietan jasotako eta hotel, jatetxe eta kafetegien sektorean banatzeko aurreikusita zeuden produktu galkorrak). Jarduketak stock-ak erretiratzearekin eta kudeatzearekin lotuta egon daitezke, baita izozteko edo beste mota bateko ezohiko neurriak aplikatzearekin ere, etorkizunean produktu horiek merkaturatu ahal izateko.

Aginduaren onuradunak produktuaren stocka duten euskal enpresak izango dira, gutxieneko kostu-preziora iristen ez direnak eta eskaria jaitea edo prezioak ekoizpen-kostuen azpitik jaitea ekar dezaketenak.

Euskadin elikagaien produkzioa mantendu nahi dute eta hornikuntzako lehen helburu horri erantzuteko arriskuen analisi bat kontuan hartuz identifikatu diren premiazko neurrietan oinarritzen dira. Horretaz gain, hotel, jatetxe eta kafetegien sektoreko kanala erabat itxi izanaren ondorioz, elikaduraren balio-kateko enpresak jasaten ari diren larrialdi-egoera arintzea ere bilatzen da.

**\*Covid19 Funts bereziaren bitartez**

**10. JARDUKETA. SENDOTU eta IKERKETA PROGRAMAK ATZERATZEA**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindu berriaren bitartez, ondoren aipatuko ditugun programei loturik, ETEek administrazioari itzuli beharreko kredituak eta alokairuak atzeratuko dira:

- **Sendotu:** Nekazaritza, arrantza, elikadura eta landa-garapen sektoreetako pertsona fisiko edo juridikoentzako laguntza-programa, inbertsio-proiektuak finantzatzeko, Finantzen Euskal Institutuak eta Finantza Erakunde laguntzaileek eman beharreko maileguei bermeak emanez, eta mailegu horien finantza-kostua murrizteko interes-tasen hobaria eskainiz.
- **Ikerketa:** Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreetan ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoarentzako babes-programa.

Bi programen itzulketen atzerapenaren zenbatekoa **400.000 eurokoa** da.

<b>Ekimena</b>	<b>Kopurua</b>
Inplantalariak	390.000
industria digitala: ete-ei material teknologikoak erosteko laguntzak	2.360.000
covid19 gaixotasunaren aurkako proiektuen ikerketarako laguntza*	1.000.000
Industria programen itzulpenen ordainketa atzeratzea	7.450.000
Indartu programaren ordainketa aurreratzea	1.500.000
Bideratu Covid-19*	20.000.000
Parke teknologikoetan alokairuen kobrantza atzeratzea	3.000.000
Industria-poligonoetan alokairuen kobrantza atzeratzea	3.315.000
Elikadura sektorean soberakinak estaltzeko programa*	6.000.000
Elikadura programa itzulpenen ordainketa atzeratzea	400.000
	<b>45.415.000</b>



## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### **EUSKO JAURLARITZAK KOLEKTIBORIK KALTEBERENEI ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKO GIZARTE-LAGUNTZA BERRIAK ONARTU DITU**

- **Gizarte-larrialdietarako laguntzen aurrekontua 16 milioi eurotan gehitu du**
- **10 milioi euroko funts berri bat sortu du bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsoneri laguntzeko eta haurren pobrezia aurre egiteko**
- **Kontziliaziorako laguntzak egokitu eta handitu ditu, haurrak kargura eta/edo Koronabirusarekin dauden pertsonak dituzten familiei laguntzeko, 15 milioi bideratuz**

Gaur astearteko Gobernu Kontseiluak, inor atzean ez uzteko premisari jarraikiz, ezohiko hainbat neurri sozial gaitu ditu euskal familiei eta pertsoneri laguntzeko (eta, bereziki, kolektiborik kalteberenei). Neurri horiek pandemiaren beste ondorioak jasaten ari diren edo jasango dituzten pertsoneri zuzenduta daude.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak 16 milioi eurotan gehitu du (27,5etik 43,5era) Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak aurten gizarte-larrialdietarako laguntzetara bideratu zuen urteko aurrekontua. Gainera, funts berri bat sortu du bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsoneri laguntzeko eta haurren pobrezia aurre egiteko. Zehazki, 10 milioi euro bideratu ditu horretarako. Azkenik, lan-bizitza eta familia-bizitza kontziliatzeko laguntza-programa aldatu egin da. Izan ere, egoera berriak txertatu dira eta jaso beharreko zenbatekoak gehitu dira, 15 milioi euroko aurrekontua gehituz.

Ekonomia globalari eta etxeko ekonomia askori erasango dien egoera berezi eta berri honek kaltetutako kolektiborik ahulenei zuzendutako lehen ekintzak dira.

#### **GLLen gehikuntza**

Gobernu Kontseiluak gaur hartu dituen lehen neurrietako bat 2020ko gizarte-larrialdietarako laguntzetarako aurreikusitako urteko zuzkidura 16 milioi eurotan gehitzea izan da. Horrela, beraz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekarpena 27,5 milioi eurotik 43,5 milioi eurora igoko da.

GLLak etxebizitzaren mantentzearen eta arropari, hezkuntzari, prestakuntzari eta osasun-arretari lotutako lehen mailako premien ondoriozko gastu mota orotara bideratzen dira. Azken batean, bizitzako oinarrizko premiei erantzuteko beharrezkoak diren gastuak dira. Familiek oinarrizko gizarte-zerbitzuen bitartez eska ditzakete, eta Euskadiko udalek jasotzen dute Eusko Jaurlaritzaren guztizko aurrekontutik dagokien zati proportzionala, biztanlerik kalteberenen artean banatzeko.

Gaur 2020. urterako onartu den aurrekontu-gehikuntzaren bidez, Euskadiko familiarik pobretuenen ekonomiek jasan dezaketen okerragotzearen ondorioz datozen asteetan edo hilabeteetan sor daitekeen eskariari erantzuteko funtsak jarriko ditu Eusko Jaurlaritzak udalen esku.

Laguntza hauek herrietako gizarte-zerbitzuetako bulegoetan tramitatzen dira.

### **Funts berria bazterketaren esparruan**

Egoera honetan, Eusko Jaurlaritzaren ustez beharrezkoa da bazterketa-egoeran edo egoera hori jasateko arriskuan dauden pertsonentzako baliabide gehigarriak aktibatzea, krisi-egoera honek ahalik eta ondoriorik txikiena izan dezan eta pertsona horiek larriki kaltetu ez ditzan. Horretarako, 10 milioi euroko funts berri bat sortu du. Funts horren bidez, alde batetik, haurren pobrezari aurre egin nahi zaio, baliabiderik ez duten familiei lagunduz, eta, bestetik, beste kolektibo kaltebera batzuk (zirkunstantzia hauetan are kalteberagoak direnak) babestu nahi dira, hala nola bazterketa-baliabideen erabiltzaileak, etxerik gabeko pertsonak eta krisiaren ondorioz laguntza behar izango duten pertsonak. Kasu horietan, bizitokiak, mantenua eta premiazko materialak eskainiko dira. Halaber, laguntza emozionaleko mekanismoak indartzea aurreikusi da, laguntza hori eskatzen duten pertsonen eusteko eta laguntzeko eta gizarte-zerbitzuen sistemaren kolapsoa saihesteko.

### **Kontziliaziorako laguntzak**

Lan-bizitzaren eta familia-bizitzaren kontziliazioaren arloan dauden laguntzak malgutzeko eta aldi batean luzatzeko, jaso beharreko zenbatekoak gehitzea eta jasotzeko baldintzak aldatzea erabaki du gaur Eusko Jaurlaritzak. 15 milioi gehiago bideratu dira.

Alde batetik, 16 astera bitarteko aitatasun- eta amatasun-baimenak parekatzeko programan, gurasokidea (eskatzailea ez dena) diruz lagunduko den jarduketa osoak dirauen aldian Gizarte Segurantzaren alta emanda egoteko betekizuna malgutu egingo da, enpresarekiko lan-harremana COVID-19ren ondorioz etenda geratzen denean ere baimena ematen jarraitu ahal izateko, betiere kontratuaren etetea diruz lagunduko den jarduketaren aldian gertatzen bada.

Bestetik, malgutu egingo dira lan-bizitza eta familia-bizitza kontziliatzeko laguntzak, eszedentzia hartzeko edo lanaldia murrizteko laguntzen bidez, era horretan ikastetxeen eta arreta-zentroen itxierak eraginpean hartutako

adingabeak eta/edo mendeko pertsonak edota Covid-19k kutsatutako edo isolatutako pertsonak zaindu ahal izan daitezten. Ildo horretan:

- Laguntza horiek emateko gutxieneko aldia malgutu egingo da. Orain arte 59 egunekoa zen aldi hori, eta orain txikiagoa izan daiteke, betiere datak bat badatoz zentroen itxierarekin edo diagnostikatutako pertsonen isolatuta egon behar duten denborarekin.
- Laguntzen zenbatekoak bikoiztu egingo dira.
- Adingabeak zaintzeko laguntzen kasuan, adina luzatu egingo da, eta 14 urtetik beherakoak hartuko dira kontuan adingabeak zaintzeko eszedentziatarako eta lanaldi-murrizketarako laguntzetan.

Laguntzak atzeraeraginezko izaerarekin malgutuko dira, ikastetxeak itxi ziren egunetik aurrera.

Laguntza hauek telematikoki tramitatu daitezke, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunearen bitartez, non zalantzak ere argitu daitezke. Edozein modutan, 012 telefonora ere deitu daiteke informazioa lortzeko.

## COVID 19

### Enplegua eta Gizarte Politikak

#### LANBIDEK LAGUNTZA-ILDO BAT SORTU DU AUTONOMOENTZAT ETA ENPRESABURU INDIBIDUALENTZAT

- **Diru-laguntza horiek pertsona horien kotizazioak eta errentamenduak ordaintzera bideratuko dira**
- **Euskal Enplegu Zerbitzuak 3 milioi euro bideratuko ditu**

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio gaur Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak sortutako eta enpresaburu indibidualei eta autonomoei zuzendutako ezohiko laguntzen programa berri bati. Laguntza-ildo horren bidez, Gizarte Segurantzarako kotizazioen gastuetarako eta alokairu-errentetarako diru-laguntzak emango dira.

Eusko Jaurlaritzak, guztira, 3 milioi euro bideratuko ditu laguntza-ildo berri horretara. Horren bidez, pertsiana jaitsi behar izan duten Euskadiko milaka pertsonaren egoera arindu nahi da. Izan ere, COVID-19aren hedapenak sortutako alarma-egoera dela eta enpresaburu indibidual eta autonomo batzuek beren negozioak aldi baterako itxi behar izanak eragin duen zuzeneko galera ekonomikoari aurre egin nahi zaio.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira:

- Langile Autonomoen Araubide Bereziari edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzako dagokion araubideari edo nahitaezko mutualitate profesionalei lotutako norberaren konturako langile gisa aurre egin beharreko kotizazioaren ordainketari lotutako kuotak. (Gastu hori ez da diruz laguntzeko modukotzat hartuko Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak edo beste administrazio publiko batzuek diruz lagundu dutenean).
- Eta negozio-lokalen errentamendua, betiere familia-etxebizitza baten parte ez badira, lokalaren errentatzailearekin odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailarainoko ahaidetasunik ez badago eta errentatzaile gisa diharduen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez bada.

Laguntza-ildo honen onuradunak honako hauek izan daitezke (betiere EAEn erroldatuta badaude, bizilekua bertan badute, enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn badute eta lantokia bertan badago):

- Enpresaburu eta profesional indibidualak.
- Ondasun Erkidegoetako eta Sozietate Zibiletako bazkideak, betiere diru-laguntza norberaren izenean eskatzen bada.

Informazio gehiago: [www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus)

**COVID 19**

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza**

**INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILAK  
PARKE PUBLIKO BABESTUEN ALOKAIKURIA ORDAINZETIK SALBUETSI  
DITU KORONABIRUSAK SORTUTAKO KALTEBERATASUN  
EKONOMIKOAN DAUDEN PERTSONAK**

- **Halaber, Eusko Jaurlaritzaren eta Alokabideren titulartasuneko parke publikoan maizter-botatze guztiak eten dira alarma-egoerak dirauen artean**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erabaki du alokairua eta erkidego-gastuak ordaintzetik aldi baterako salbuestea koronabirusak sortutako kalteberatasun ekonomikoa jasaten ari diren Euskal Autonomia Erkidegoko alokairu babestuko parke publikoetako maizterrak. Hots, osasun-emergentziak eragindako krisialdiaren ondorioz langabezian geratzen diren guztiak edo, langile autonomoa edo enpresaburua izanik, diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada nabarmena —% 40 edo handiagoa— jasaten dutenak.

Ondorio horietarako, alokairu-errentaren, erkidego-gastuen eta oinarrizko horniduren baturak familia-unitateko kide guztiek jasotzen dituzten diru-sarrera garbien % 30etik gorakoa izan beharko du.

Neurria apirilean eta maiatzean aplikatuko da eta, luzapenik izanez gero, ekainera hedatuko da euskal parke publikoaren etxebizitza guztietan: Eusko Jaurlaritzaren beraren titulartasuneko etxebizitzetan, Alokabide sozietate publikoaren etxebizitzetan, Bizigune eta Gaztelagun programen esparruan alokatutakoetan, eta indarreko edozein babes-formularen pean alokairuan lagata dituzten beste eragile publiko eta pribatu batzuen titulartasuneko etxebizitzetan.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du alokairuen ordainketa, COVID-19 funtsaren zuzkiduraren bitartez, eta 2,5 milioi euro bideratuko ditu horretarako.

Alokairuaren ordainketaren salbuespena maizterrak eskatu beharko du. Horretarako, eskabidea aurkeztuko dio Alokabide SAri edo alokairuan lagatako etxebizitza daukan eragile publiko edo pribatuari, kalteberatasun-egoera egiaztatzen duten dokumentuekin batera. Tramite guztiak online egin daitezke, kanal telematiko eta telefonikoen bitartez, bizi ditugun salbuespenezko inguruabarrak kontuan harturik.

Bestalde, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak erabaki du Eusko Jaurlaritzaren eta Alokabideren titulartasuneko parke publikoan maizterbotatze guztiak etetea alarma-egoerak dirauen artean.

## COVID 19

### Ogasun eta Ekonomia

**EUSKO JAURLARITZAK ETA ELKARGIK 25M/€-KO PRESAZKO  
FINANTZAKETA-LERROA IREKI DUTE ENPRESA TXIKI ETA  
ERTAINENTZAT ETA AUTONOMOENTZAT, % 0-ko INTERES-TASAREKIN**

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, funtsezkoa da ezohiko neurriak ezartzea aparteko ezaugarriak dituen egoera ekonomiko eta sozial batean. Hori dela eta, 25 m/€-ko mailegu zuzenatarako premiazko finantzaketa-lerro bat aktibatu du Elkargirekin batera, autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei laguntzeko, Finantzen Euskal Institutuaren (FEI) bidez.

Helburua da osasun-krisiaren inpaktua arintzen saiatzea, eta euskal enpresa txiki eta ertainen, mikroenpresen, autonomoen eta saltokien altxortegia kolapsa dezakeen finantza-eragina arintzen saiatzea. Hartara, erabilgarri badago likidezia-tentsioak estaltzeko finantzaketa hori.

"Zubiarena" egingo duen tresna bat da, betiere Eusko Jaurlaritzak Elkargirekin eta hemen jarduten duten banku-erakundeekin lankidetzan aurreikusitako 500 m/€-ko zirkulatzailako finantzaketa-lerroa prest izan arte.

Finantzen Euskal Institutuaren COVID19 lerroa erabili ahal izango da enpresaren ohiko funtzionamenduko sei hilabeteren baliokideak diren egitura-gastu finkoak estaltzeko; edonola ere, zenbateko horretatik likidezia- edo kostu-erraztasun iragankor edo aldi baterako guztiak kendu beharko dira (adibidez, foru-ogasunen geroratzeak, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteek eragindako lan-kostuen murrizketa edo aplikatu daitezkeen beste kenkari batzuk).

#### Hauek dira **maileguen baldintzak**:

- Zenbateko minimoa: 5.000€ autonomoentzat eta 50.000€ enpresa txiki eta ertainentzat.
- Zenbateko maximoa: 50.000€ autonomoentzat eta 1.000.000€ enpresa txiki eta ertainentzat.
- Interes-tasa: % 0-ko kostua (FEIk diruz laguntzen du Euribor + urteko % 0,50).
- Finantzaketa-epea: Gehienez 5 urte.
- Gabezia: 12 hilabetera arte.
- Kuotak: Hiru hilean behin

#### Hauek dira **eskuratzeko baldintzak**:

- Jarduera ekonomikoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egitea, egoitza soziala, erabaki-zentroa eta/edo gutxienez jarduera-zentro bat Euskadin izanik.
- Enpresa txiki eta ertainaren kalifikazioa edukitzea.
- Finantzen Euskal Institutuarekin edo Elkargirekin mugaeguneratutako zorrik ez izatea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Era berean, eskaerarekin batera, osasun-larrialdiak norberaren jardueran duen eraginaren deskribapen labur bat aurkeztu beharko da, baita nork berak dituen finantzaketa-beharren deskribapen labur bat ere.

**Informazio gehiago:**

**INSTITUTO VASCO DE FINANZAS**

Tlfn: 945019113

@: [info@ivf-fei.eus](mailto:info@ivf-fei.eus)

**ELKARGI**

[www.elkargionline.com](http://www.elkargionline.com)

GIPUZKOA: 943309060 [comercialgipuzkoa@elkargi.es](mailto:comercialgipuzkoa@elkargi.es) / BIZKAIA: 944238228  
[comercialbizkaia@elkargi.es](mailto:comercialbizkaia@elkargi.es) / ARABA 945231212 [comercialaraba@elkargi.es](mailto:comercialaraba@elkargi.es)

## COVID 19 Hezkuntza

### **KORONABIRUSAK SORTARAZITAKO KRISIAREN ERAGIN EKONOMIKOA HEZKUNTZA SAILEAN**

Koronabirusak eragindako krisiak, hezkuntza sistemaren ohiko funtzionamenduan sortarazitako kalte sakonetatik harago, ondorio ekonomikoak ere sortzen ditu Hezkuntza Sailean. Egoera salbuespenezkoa dela ikusita, Hezkuntza Sailak funtsezkotzat jotzen du ahalegin ekonomiko gehigarri bat egitea herritarrei, ikasleei eta euskal hezkuntza-sistemaren parte diren familiei eskaintzen dien zerbitzua aintzat hartuz.

Familien eskubideak lehenetsiz, beraz, Hezkuntza Sailak hainbat erabaki hartu ditu haien mesedetan. Euskal Hezkuntza Sistema ekitatiboa eta berdintasunezkoa denez, funtsezkoa da familiek jaso ditzaketan dirulaguntzak babestea.

Horrela bada, ikastetxeetako aurrez aurreko jarduera bertan behera geratu bada ere – eta horrekin batera garraio edo jantoki zerbitzuak–, jantoki-beka bat jasotzeko eskubidea duten familiek osorik jasoko dute laguntza hori. Zenbateko hori, gainera, ez da murriztuko ikastetxean zerbitzu horren beharrik izan ez duten egunen arabera. Horretarako, Hezkuntza Sailak 2,2 milioi euroko zenbatekoa kalkulatu du. Halaber, jangela zerbitzua erabiltzen duten familiek ere ez dute inolako kopururik ordaindu beharko etenaldiak irauten duen egunetan; 3,9 milioi euroko zenbatekoa du neurri honek.

Haurreskolak Partzuergoak ere antzeko erabaki bat hartu du, zerbitzu hau erabiltzen duten familientzat: koronabirusaren krisiak eraginda gelak itxita izango diren egunei dagozkien kuotak ez kobratzea erabaki du. Batez beste, Haurreskolak Partzuergoak 780.000 euro inguru jaso ohi ditu hilero familien kuoten kontzeptuan.

Hezkuntzako zerbitzu osagarriari dagokienez (Hezkuntza Sailak kudeatzen ditu zerbitzu horiek ere, ikastetxe publikoetan), aurrez aurreko jarduera eteteak eragina du horietan ere. Egun hauetan gauzatzen ez diren zerbitzuak dira, baina Hezkuntza Sailak kostuaren zati bat bere gain hartu behar izan du. Une honetan, Hezkuntza Saila kostu hori zehaztuko duen kalkulu bat egitekotan da, besteak beste, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean (COVID-19ren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko Errege Lege Dekretua)

Azkenik, garrantzitsua da Lanbide Heziketaren alorretik ere, une zail hauetan beharrezkoak diren osasun-elementuak diseinatzen eta sortzen laguntzeko egiten ari den lanari balioa ematea. Jarduera hori garatu ahal izateko,



Hezkuntza Sailak 300.000 euroko inbertsioa aurreikusten du hasieran, Lanbide Heziketako ikastetxe sare baten bidez osasun-ekipamenduak ekoizteko.

## **Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza**

### **LURRALDEAREN ANTOLAMENDU PLANAK ETA HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO TRESNAK ONARTZEKO, AZTERTZEKO ETA ALDATZEKO PROZEDURAK ERREGULATZEKO DEKRETUA ONARTU DA**

Gobernu Kontseiluak Lurralde Antolamenduko Planak eta Udal Hirigintza Planak onartzeko prozedura arautzen duen Dekretua onartu du. Bertan sartuta daude Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko tramiteak.

Orain arte bi prozedurak, nagusia, hirigintza-antolamenduko tresnei eta planei lotua, eta instrumentala, ingurumen-ebaluazioari lotua, lege diferenteez erregulatu izan dituzte. Ondorioz, batzuentzako eta besteentzako aurreikusitako tramiteek, zehaztapenek, dokumentuek eta terminologiak ez zuten behar bezalako loturarik. Horren ondorioz, praktikan, epeak luzatu egiten ziren eta zenbait tramitetan saihestu zitekeen bikoiztasuna gertatu da.

Dekretua tramiteen aldiberekotasuneko, prozedura sinplifikatzeko eta arrazionalizazioko printzipioetan oinarritzen da.

Arauaren bitartez udal-mailako hirigintza planen (HAPO) eta esparru murriztuagoko planen (Plan Partzialak eta Plan Bereziak) tramitazioa sinplifikatzen da eta, hirigintzako zein ingurumeneko epeak elkartuz, bateratzen da.

Erregulazio argiagoa edukitzea —segurtasun juridiko handiena eskaintzeko— eta tramitazio-epeak murriztea lortu da. Plan Orokorren kasuan, epe hori bi urte gutxiagokoa izan daiteke; garapen-plangintzarako urtebete gutxiagokoa; eta Xehetasun Azterketak hiru hilabeteko epean onartu ahal izango dira (gaur egun epe hori urte eta erdikoa izan daiteke).

Administrazioaren tramiteak arintzen saiatzeko bai sektore publikoak bai pribatuak egindako eskaerari erantzuten dio Dekretuak. Era horretan, udal-planak tokiko agente batek dituen 4 urteko esparruaren mugarekin sustatu eta onartu ahal izango dira, plangintza prestatzeko eta tramitatzeko prozedurak sinplifikatuz eta arinduz.

Bide batez, azken erabaki judizialen arabera, Dekretuaren bidez honako hau argitu nahi da: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen arabera, ordenantzak eta katalogoak ez dira plan gisa sailkatzen, eta beraz, ez dago haien ingurumen-ebaluazioa egiteko beharrik, hain zuzen ere, hirigintza-ikuspegitik ahalmen berrizailerik ez dutelako.

Parte-hartze publiko zabalaren ondorioz, hainbat alderdi berri jaso dira; horien artean honako hauek azpimarratuko ditugu:

- a) **Herritarren parte-hartzea sustatzea.** Era horretan, hemendik aurrera lurralde-antolamenduko planek eta plan orokorrek, derrigorrez, euren parte-hartze programak indartu beharko dituzte, eta programa horietan herritarren eta elkarten parte-hartze eskubidea ahalbidetzeko nahikoa helburuak, estrategiak eta mekanismoak ezarriko dira.
- b) Dekretuaren printzipio orokorren artean, erregulatzen diren prozeduretan **genero-ikuspegia** hartuko da kontuan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) eta Saila hirugarren urtez jarraian ematen ari den dirulaguntzekin Udalak burutzen ari diren jardueretan modu aitzindarian jada egin dutenari jarraituz.

## Segurtasuna

### **SEGURTASUN SAILAK ZALDIBARKO ZABORTEGIAREKIN LOTUTAKO LARRIALDIKO BI ESPEDIENTEREN BERRI EMAN DIO GOBERNU KONTSEILUARI**

Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasuneko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakitera eman dio Larrialdia Zaldibar kontratua, droneen bidez bideoak grabatzeko sistema hornitzekoa, esleitu dela ezohiko prozedura bidez 81.917 euroan.

Alde batetik, azken belaunaldiko bi transmisore-ekipamendu dira, eta unitate bakoitzak garraiatzeko poltsa bat, bateriak eta kargagailuak ditu, eta, bestetik, bi transmisore-ekipamenduentzat beharrezko diren lizentziak eta jasotako bideo-seinaleak grabatzeko ahalmena duen hargailu bat. Horrez gainera, instalazio eta konfigurazio zerbitzuak ditu, bai eta erositako ekipamendu osoarentzat bermealdian indarrean egongo den euskarri aurreratua ere.

Zaldibarko zabortegean gertatutakoaren ondorioz berehala jardun behar izan denez, ekipamenduak berehala hornitu behar ziren Segurtasun Saileko teknikariek eta erreskate-lanetan eta beharrezko gainerako jarduketetan parte hartzen ari diren EAEko gainerako larrialdi-zerbitzuek premiaz, koordinatuta eta modu seguruan jardun ahal izateko.

Bestalde, Segurtasuneko sailburuak baliabide materialak amiantoz gabetzeko lanetarako 8.916,25 euroko larrialdiko espedientearen berri ere eman dio Gobernu Kontseiluari.

Amiantoz gabetzeko lanek berehala jardun beharra ekarri dute zabortegean gertatutakoaren ondoren, eta lan horiek berehala egin behar ziren Segurtasun Sailaren baliabide materialak premiaz erabilgarri izan ahal izateko, Ertzaintzako unitateek operatibo egoten jarraitu ahal izan zezaten.

**COVID 19**  
**Presidencia**

## COVID 19

### Desarrollo Económico e Infraestructuras

#### MEDIDAS DE URGENCIA COVID 19 PARA PYMES

El Departamento de Desarrollo Económico establece medidas destinadas a las PYMES en dos líneas de actuación, todas ellas con carácter de máxima urgencia.

Un bloque de medidas que contará con la cobertura del Fondo extraordinario Covid19 y un bloque de medidas, mediante una gestión extraordinaria de los programas existentes en el propio departamento y en el Grupo Spri y adecuados al escenario de emergencia en el que se encuentra el tejido empresarial de Euskadi.

Se destinará un total de **45.415.000 euros** con carácter de urgencia para facilitar la puesta a punto de la tecnología y el teletrabajo en las pymes; la investigación de urgencia en producto que contribuya a paliar el coronavirus; la financiación indirecta a pymes industriales y del sector de la alimentación; una nueva línea de ayudas para la reestructuración y relanzamiento de empresas en crisis provocada por el Covid19; y un nuevo programa para la gestión de excedentes de producto alimentario.

De los 45.415.000 euros, 27.000.000 se sufragarán, a partir del Fondo extraordinario Covid19, y el resto se gestionará desde el presupuesto ordinario en vigor.

#### TECNOLOGÍA Y TELETRABAJO

##### **ACTUACIÓN 1. INPLANTALARIAK**

Servicio de Asesoramiento e Implantación de Teletrabajo a disposición de autónomos y pymes, para apoyarles en el uso de la tecnología que les permita continuar con su actividad o parte de la misma desde su domicilio.

Este servicio se presta de forma telemática por un equipo de profesionales tecnológicos con amplia experiencia en asesoramiento a autónomos/as y empresas.

El servicio está en marcha desde el viernes 20 de marzo, y se han registrado hasta el momento 160 solicitudes que serán atendidas en los próximos días.

El importe de la iniciativa es de **390.000 euros**. Este servicio ya se venía ofreciendo con anterioridad al COVID-19. Ahora lo hemos adaptado a la situación de Alarma y al Teletrabajo, sin coste adicional.

Más información <https://www.spri.eus/laguntzak/>

## **ACTUACIÓN 2. INDUSTRIA DIGITALA: AYUDAS A LA COMPRA DE MATERIAL TECNOLÓGICO**

Se ha adelantado la convocatoria del programa con un importe de **2.360.000 euros** y con el objeto de Apoyar la incorporación de las Tecnologías de la Electrónica, la Información y las Comunicaciones (TEICs) en las empresas industriales y empresas de servicios técnicos, de diseño y de logística, ligados al producto-proceso industrial, con el objeto de mejorar la competitividad de la empresa.

Subvenciona con un 50%-35%-25% (en función del tamaño de la empresa) la implantación de diferentes TEICs en las empresas.

**Se ha incluido el Teletrabajo como concepto subvencionable**, apoyando los gastos de consultoría, ingeniería, y adquisición de hardware y software.

Tienen la consideración de actuaciones subvencionables los siguientes proyectos de implantación de TEICs:

